

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BILBAO-BIZKAIA UREN PARTZUERGOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA. 2016

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak joan den maiatzaren 24an aho batez onartu zuen Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoaren ekonomia-finantzaren kudeaketari buruzko fiskalizazio txostena, 2016ko ekitaldiari dagokiona.

2016ko **urteko kontuei** dagokienez, Epaitegiak **aldeko iritzia** plazaratu du.

Honela, bada, ondorioztatu du Partzuergoak zuzentasunez **bete duela** 2016ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen **lege arautegia**.